

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gauegiz-Arteagako Udala**

Enpresa eta autonomoentzako diru-laguntza zuzenen programa, COVID-19K eragindako osasun-krisiaren ondoren Gauegiz-Arteagako udalerrian establezimenduei eusten zaiela sustatzeko.

Alkatetzaren 76/2020 Ebazpenaren bidez, 2020ko ekainaren 19an, diru-sarrerak eta enpleguak murriztu dituzten enpresei eta autonomoei zuzeneko diru-laguntzak emateko programa onartu zen, osasun-krisi horrek izan dituen ondorio negatiboak arintzeko eta establezimenduak ixteak eta/edo jarduera eteteak eragindako gastuei eta kalteei aurre egin ahal izateko.

Horren berri ematen da, jendeak horren berri izan dezan, honako ezaugarri hauek kontuan hartuta:

Gauegiz-Arteagan, 2020ko ekainaren 19an.—Alkatea, Juan Félix Naberán Ozamiz

**ENPRESA ETA AUTONOMOENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ZUZENEN PROGRAMA,
COVID-19K ERAGINDAKO OSASUN-KRISIAREN ONDOREN GAUTEGIZ-ARTEAGAKO
UDALERRIAN ESTABLEZIMENDUEI EUSTEN ZAIELA SUSTATZEKO****1. Helburua**

COVID-19k eragindako krisi ekonomikoaren ondorioak arindu eta berehala jorratzea da deialdi honen helburua. Horretarako, diru-laguntza zuzenak emango dizkie COVID-19ren ondorioen zioz beren diru-sarrerak eta enpleguak murriztuta izan dituzten enpresei eta autonomoei, osasun-krisi honek izan dituen ondorio negatiboak arintzeko eta beren jarduera etetearen edo/eta establezimenduak ixtearen ondorioz sortu ahal izan diren gastu eta kalteei aurre egiteko asmoz. Hala, Gautegiz-Arteagako enpresei likidezia emango zaie, merkataritza-jarduerari eta ekonomiaren sustapenari eusteko orduan erraztasunak jartzen laguntzeko.

Interes publikoa babestu nahi da, eta, horretarako, enpresei eta autonomoei babesa eman, COVID-19k eragindako krisi ekonomikoaren eragina gutxitzeko eta, osasun-alarma amaitu denean, Gautegiz-Arteagako ekonomia ahalik eta arinen berpiztu dadila lortzeko. Horretarako, zuzenean jardungo da krisiaren eragina gehien jasan duten pertsona fisiko eta juridikoen gainean.

2. Aplikatu behar den araudia

Deialdi honek, oro har, honako arau hauek beteko ditu: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (DLO); hura garatzen duen Araudia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (DLOA); 2020ko ekitaldirako Udal Aurrekontua betetzeko oinarriak; ordezko moduan, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (Apapel); eta bere izaeraren ondorioz aplikagarria den beste edozein arau-xedapen.

Diru-laguntza hauek kudeatzean, bete egin behar dira gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak, bai eta helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko efizientzia ere.

Bitarteko elektronikoak erabiliz izapidetuko da diru-laguntza, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Apapel) 14.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Aurrekontu-kreditua

Diru-laguntza horiek emateko zenbatekoa, guztira, 20.000 eurokoa izango da indarreko udal-aurrekontuan, tokiko establezimenduak diruz laguntzeko 4312 47101 aurrekontuaren kargura. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudia (DLOA) onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 58. artikulua arabera, beste zenbateko osagarri bat ezarriko da. Zenbateko osagarri hori, zehazki, hala badagokio egiten den kreditu-aldaketaren ondorioz eskuragarri dagoen aurrekontu-kredituaren igoeraren parekoa izango da. Edonola ere, aurrekontu hori egon badagoela aitortu behar da, zenbateko osagarri horren ziozko laguntzak eman baino lehen.

4. Laguntzen zenbatekoa

Establezimendu bakoitzari 900 euros-ko diru-laguntza bakarra emango zaio, bertan lan egiten duten autonomoak zenbat diren gorabehera.

Zerbitzu bat baino gehiago ematen duten edo jarduera bat baino gehiago egiten duten pertsona juridiko edo autonomoak badira, enpresa/establezimendu bakar moduan ulertuko dira, eta, beraz, diru-laguntza bakarra jasotzeko eskubidea izango dute.

Emandako laguntzen zenbatekoa ez da inola ere izango dagoen kreditua baino altuagoa.

**5. Diru-laguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak**

Diru-laguntza eskatu ahal izango dute legez eraturako pertsona fisiko nahiz juridikoek, baita ondasun-erkidegoek ere, baldin eta diru-laguntza emateko arrazoi diren enpresa-jarduerak egiten badituzte, eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Jarduera Gauegiz-Arteagan dagoen establezimenduan egin behar da.
- b) Zerga-helbidea Gauegiz-Arteaga udalerrian egon behar da.
- c) Jarduera ekonomikoa pertsona autonomo edo enpresa batek edo gehiagok garatu behar dute.
- d) Garatzen den jarduerak kalteak jaso behar izan ditu alarma-egoeran zehar ezarritako araudian aurreikusitako establezimendu-itxieraren ondorioz, edo, hala ez bada, enpresak garaturako jarduerak murrizketak izan behar izan ditu bere fakturazioan, gutxienez% 50ean, alarma-egoera aitortu aurreko seihileko naturalean egindako batez besteko fakturazioarekin alderatuta. Pertsona fisiko edo juridikoak ez badaramatza 6 hilabete natural altan, diru-sarrerak murriztu zaizkiola egiaztatu ahal izateko, jardueraren aldia kontuan hartuta egingo da balorazioa.
- e) Ukitutako jarduera ezin izan da konpentsatu fakturazioan egondako igoera baten ondorioz, eskatzailearen internet edo telefono bidezko negozio-bolumena areagotu delako.
- f) Altan egon behar da Gizarte Segurantzako araubidean edo dagokion mutualitate profesionalean eta Ogasunean, eskaria aurkezten den unean.
- g) Ezin da egon Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 13.2. eta 13.3. artikuluetan jasotako inguruabarretako batean ere, eta, zehazki, egunean izan behar ditu bere zerga-betebeharrak estatuko Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekiko. Baldintza hori bete beharko da eskaria aurkezten den datatik diru-laguntza ordaintzen den data arte, hala badagokio.
- h) Ezingo da zorrik izan ordaintzeke Gauegiz-Arteagako Udalarekin. Baldintza hori bete beharko da eskaria aurkezten den datatik diru-laguntza ordaintzen den data arte, hala badagokio.
- i) Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, ordezkari ahalordedun bat izendatu beharko da, botere aski duena taldeari edo ondasun-erkidegoari dagokion betebeharrak betetzeko. Era berean, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 11.3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ondasun-erkidegoa edo taldea ezin izango da desegin, harik eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 39. eta 65. artikuluetan aipatzen den preskripzio-epea iragan arte.

6. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzeko mugak

Deialdi honetan ematen diren diru-laguntzak bateragarriak dira helburu bererako estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekiko.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide posibleen zenbatekoarekin batera, ezin izango da inola ere izan koronabirusak eragindako krisiaren ondorioz jarduerak izandako diru-sarreraren murrizketa baino altuagoa.

7. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

1. Deialdi honetan araututako diru-laguntzak eskuratzeko eskaera-eredu normalizatua udalaren webgunean eskuratu ahal izango da: www.gautegizarteaga.com.
2. Eskaerak telematikoki aurkeztuko dira, Gauegiz-Arteagako Udaleko Egoitza Elektronikoen bidez.
3. Eskaerak aurkezteko epea hogeit egun balioduneko izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.



4. Diru-laguntzaren eskaria ez bada ezarritako epearen barruan aurkezten eta nahitaez erabili beharreko eredu normalizatuak baliatzen ez badira, eskaera horiek baztertu egin ahal izango dira.

8. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Memoria honekin batera (I. eranskina) aurkeztuko den eskaera normalizatua sinatuta egon beharko da. Zehazki, interesdunak edo haren legezko ordezkariak sinatu beharko du. Halaber, horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, nahitaez:

- a) Pertsona fisikoa baldin bada, NANA, bi aldeetatik, edo, AIZ, pasaportearekin batera, hala ezartzen bada.

Pertsona juridikoa bada, pertsona juridikoaren, gizarte zibilaren, ondasun-erkidegoaren edo nortasun juridikorik gabeko beste erakunde ekonomiko batzuen IFZ. Era berean, administratzailearen eta eskaera aurkeztu duen pertsonaren (pertsona bera ez bada) botereak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira. Administratzailearen eta eskaera aurkeztu duen pertsonaren (pertsona bera ez bada) botereak egiaztatzeko agiriak. Administratzailearen eta eskaera aurkeztu duen pertsonaren (pertsona bera ez bada) NANA, bi aldeetatik, edo AIZ, pasaportearekin batera, hala ezartzen bada.

- b) Alta historikoa Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, zerga-helbidea Gaute-giz-Arteagan duela egiaztatzen duena.
- c) Langile Autonomoen Araubide Berezian edo dagokion mutualitate profesionalean alta emanda egotearen ziurtagiria, edo eskaeraren aurreko hilabeteetan autonomoen ordainketa egin dela justifikatzen duen ordainagiria. Pertsona juridikoaren, sozietate zibilaren edo ondasun-erkidegoaren errolda-egoeraren ziurtagiri eguneratua. Bertan, jarduera ekonomikoa jasoko da, bai eta altaren data, zerga-helbidea eta, hala badagokio, jarduera gauzatzeko erabiltzen den lokala ere.
- d) Zinpeko aitortpen normalizatua, II. eranskinean jasotako ereduaren arabera egingdakoa.

Ez da beharrezkoa izango aurreko a), b) eta c) letretan zerrendatutako agiriak aurkeztea, baldin eta horiek Gaute-giz-Arteaga Udalean badaude edo/eta baimena ematen bazaio udal-administrazioari horiek beste administrazio batzuetatik eskuratzeko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Apapel) 53.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Kudeaketa-organoak baldintza horiek egiaztatzeko baimenik ematen ez bada edo halakorik ukatzen bada, nahitaez aurkeztu beharko dira egiaztagiria.

9. Prozedura eta prozeduraren instrukzioa

1. Deialdi honetan araututako diru-laguntza ematean, bete egin beharko da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 22.1. eta 23-27 artikuluetan ezarritakoa.

Prozeduraren instrukzioa egitea Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzailletza Arloari egokituko zaio, eta hala, ofizio bidez egingo ditu datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduera guztiak, eta horiek oinarri hartuta egin beharko da ebazpen-proposamena.

2. Diru-laguntzak zuzenean emango dira, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 22.2.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Izan ere, eman nahi diren diru-laguntzak salbuespenekoak dira, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak direla eta, deialdi publikoa egitea zaila baita, gaur egun bizi dugun pandemia-egoeraren ondorioz. Deialdian ezartzen diren baldintza guztiak betetzen dituzten eta eskatutako agiriak aurkeztu dituzten eskaerak onartu egingo dira. Diru-laguntza emateko, onartutako eskaera guztien emaitza hartuko da kontuan. Diru-laguntzaren kontzeptuan emandako zenbatekoa berdintasun-irizpideen arabera banatuko da eskari guztien artean, eta ezin izango dira inola ere gainditu 4. atalean aurreikusitako gehieneko zenbatekoak.



3. Instrukzio Zerbitzuak egiztatuko ditu epe barruan jaso diren eskaerak. Eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskaerak Alkatetzari aurkeztuko dizkio, azken horrek horien aldeko ebazpena eman dezan.

4. Erabaki-proposamena egin baino lehen, udalaren webgunean eta udalaren ediktu-taula elektronikokoan argitaratu beharko dira, jakinarazpen-ondoreetarako, honako zerrenda hauek:

- a) Diru-laguntzaren onuradun izateko proposatu diren interesdunak, eskaera aurkeztu dutelako, baldintza guztiak betetzen dituztelako eta deialdian eskatutako agiriak erantsi dituztelako.
- b) Deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileak, eta, beraz, eskaera ezetsita dutenak.
- c) Deialdiaren 8. puntuaren eskatzen diren agiri guztiak aurkeztu ez dituzten eskatzaileak, eskatzen diren agiriak zein diren adierazita.
- a) eta c) puntuetan aipatutako eskatzaileei bost egun balioduneko epea emango zaie, beren eskubideari jarraikiz egokitzen jotzen duten hori alegatu dezaten, edo, hala badagokio, beren eskaria zuzendu eta eskatutako agiriak aurkez ditzaten.

5. Alegazioak egiteko eta eskaerak zuzentzeko (halakorik eskatu zaien kasuan) ezarritako epea igarotzean, eta Instrukzio Zerbitzuak txostena eman ondoren, azken horrek erabaki-proposamena Informazio Batzordeari helaraziko dio, organo eskudunak onar dezan eta, ondoren, hura argitaratu dadin.

6. Erabaki hori udalaren webgunean, udalaren ediktu-taula elektronikokoan eta Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen argitaratuko da, eta argitaratzean, jakinarazitzat joko da.

7. Diru-laguntzak emateko erabakian berariaz jasoko da diru-laguntzak eman direla, horien zenbatekoa ezarrita, eta, hala badagokio, bertan sartuko dira onuradunek bete beharreko baldintzak, betebeharrak eta zehaztapen osagarriak. Halaber, ezetsi diren eskaerak ere, hala badagokio, berariaz jasota egon beharko dira.

8. Prozedura ebazteko eta erabakia jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Prozedura horrek administrazio-bidea agortuko du, eta haren aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena ezarri duen organoan edo, bestela, zuzenean jo administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenara, jurisdikzio hau arautzen duen legean aurreikusitako moduan eta epeetan.

10. Pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak

Hauexek dira onuradunen betebeharrak:

- a) Diru-laguntzen gaineko indarreko araudian aurreikusitako jarduerak egitea, finantza egiaztatu eta kontrolatzeko.
- b) Jasotako funtsak itzultzea, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (DLO) 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, eta, zehazki, eskatutako baldintzak faltsutuz edo laguntza eskuratzea oztopatuko luketen baldintzak ezkatutuz eskuratu bada diru-laguntza, edo finantza egiaztatu eta kontrolatzeko jardueretan eragozpenak, aitzakiak, oztopoak edo ezezkoak jarri badira, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren (DLO) 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- c) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 14. artikuluan zehaztutako gainerako baldintzak betetzea.
- d) Pertsona edo enpresa onuraduna gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 3.b) artikuluko kasuetan egonez gero, publizitate aktiboaren gainean aplikagarri zaizkion betebeharrak egokitzea.

**11. Laguntzen justifikazioa**

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 30.7. artikulua arabera, diru-laguntza horiek emateko ez da beharke atal honetan adierazitakoaz besteko justifikaziorik, ondoren beste kontrol batzuk egin ahal izango diren arren.

Deialdiaren 10. puntuan eskatutako baldintzak kontrolatzeko ardura Gautegiz-Arteagako Udaleko Idazkaritza-Kontuhartzaitza Arloarena izango da, ofizioz.

2. Diru-laguntzaren onuradunak 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharke ditu honako hauek, diru-laguntzaren emakida argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera:

— Justifikazioaren aitortpena, behar bezala beteta eta sinatuta (III. eranskina).

12. Diru-laguntzaren ordainketa

1. Diru-laguntza hauek ordainketa bakarrean ordainduko dira, emandako zenbaterakoan. Horretarako, bankuko transferentzia egingo da, emakida ebazten den datatik aurrera.

2. Deialdi honetan zehaztutako (hala badagokio) betebeharrak urratzen badira, Idazkaritza-Kontuhartzaitza Arloak ofizioz hasiko du administrazio-espeditatea, eta interesdunari entzunaldia eman ondoren, diru-laguntza eman zuen organoari proposatuko dio justifikatu ez diren funtsak itzultzeko prozedura has dezala, kasuan kasuko atzerapen-interesen likidazioarekin batera.

13. Diru-laguntzen itzulketa

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) II. tituluan eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia (DLOA) onesten zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III. tituluan ezarritakoa beteko da jasotako zenbatekoa itzultzean, hala badagokio.

2. Diru-laguntza emateko ebazpena indargabetzen duten arrazoiekin batera (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren —DLO— 36. artikuluan jasota daude), jasotako dirua osorik edo partzialki itzuli behar izango da, bai eta diru-laguntzaren ordainketa egin zen datatik hura itzultzea bidezkoa dela adosten den datara arteko atzerapen-interesak eskatu ere, orokorrean Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 37. artikuluan aurreikusitako kasuak betetzen badira.

Onuradunak urratu egiten baditu deialdiaren 10. eta 11. puntuetan ezarritako betebeharrak, kontzeptu horren ziozko diru-laguntzaren zenbatekoa itzuli egingo da.

3. Dirua itzultzeko prozedura hasi den gorabehera, diru-laguntza ematearen ondorioz ezarritako baldintzak urratzen baldin badira, onuradunek kudeaketa-organuari jakinarazi ahal izango diote, sarrera-erregistroaren bidez, gertaera hori, eta, beraz, jasotako kopurua beren borondatez itzuli ahal izango dute. Horretarako, Kudeaketa Zerbitzuarekin jarri beharke dira harremanetan, jarraitu beharreko izapideak egiteko. Era berean, alde interesdunak itzulketa egiten duen unera arteko atzerapen-interesak kalkulatuko dira.

14. Epeak bertan behera ez geratzeko oinarria

COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriaren 4. atalaren arabera, epeak bertan behera geratzeko irizpidea ez da aplikatuko laguntza hauek emateko prozeduran, alarma-egoera justifikatzen duten gertaerei hertsiki lotutako egoerei buruzko prozedura bat delako.

Gautegiz-Arteagan, 2020ko ekainaren 19an.

**I. ERASKINA / ANEXO I****ESKAERA EREDUA / MODELO SOLICITUD**

**ENPRESEI ETA AUTONOMOEI ZUZENEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROGRAMA,
GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDALERRIAN ESTABLEZIMENDUAK MANTENTZEA SUSTATZEKO,
COVID-19K ERAGINDAKO OSASUN-KRISIAREN ONDORIOZ
PROGRAMA DE SUBVENCIONES DIRECTAS A EMPRESAS Y AUTÓNOMOS PARA IMPULSAR
EL MANTENIMIENTO DE LOS ESTABLECIMIENTOS EN EL MUNICIPIO DE GAUTEGIZ ARTEAGA
TRAS LA SITUACIÓN DE CRISIS SANITARIA OCASIONADA POR EL COVID-19**

Eskatzaillea / Solicitante

Establezimenduaren izena Nombre del establecimiento	<input type="text"/>				
IFZ NIF	<input type="text"/>	Helbidea Domicilio	<input type="text"/>		
Herria / Población	<input type="text"/>	PK / CP	<input type="text"/>	Probintzia / Provincia	<input type="text"/>
Herrialdea / País	<input type="text"/>	Telefonoak / Teléfonos	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Faxa / Fax	<input type="text"/>	E-maila / E-mail	<input type="text"/>		

Diru-laguntza jasotzeko kontua (IBAN: 24 digitu) / Cuenta para cobro de subvención (IBAN 24 dígitos)

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Ordezkarria / Representante

Izen-abizenak Nombre y apellidos	<input type="text"/>				
NAN DNI	<input type="text"/>	Helbidea Domicilio	<input type="text"/>		
Herria / Población	<input type="text"/>	PK / CP	<input type="text"/>	Probintzia / Provincia	<input type="text"/>
Herrialdea / País	<input type="text"/>	Telefonoak / Teléfonos	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Faxa / Fax	<input type="text"/>	E-maila / E-mail	<input type="text"/>		

Ordez kariaren sinadura, dagokionean elkartearen zigilua, lekua eta data
Firma representante, en su caso, sello de la asociación, lugar y fecha

Eskabide honetan jasotako datuak Gautegiz-Arteagako Udalaren titulartasuneko fitxategi batean sartuko dira, DBEOren 7. artikularen arabera. Tratamendu honen helburua da zure datu pertsonalak kudeatzea, eskabide honetan aipatzen den zerbitzua emateko. Datuak ez dira lagako, legeak hala agintzen ez badu.

Datuen titularrak doan baliatu ahal izango ditu indarrean dagoen legeriak aurreikusitako eskubideak. Horretarako, Gautegiz Arteagako Udaleko Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzura jo beharko du (Herriko Enparantza, 1, Gautegiz-Arteaga, PK 48314-Bizkaia).

Zure datuak aurrez aurreikusitako moduan tratatzea onartzen baduzu, markatu lauki hau:

Los datos recabados en esta solicitud, serán incluidos en un fichero cuya titularidad pertenece a Ayuntamiento de Gautegiz-Arteaga conforme al artículo 7 del RGPD. La finalidad de este tratamiento es la gestión de sus datos personales para prestarle el servicio al que se hace mención en esta solicitud. Los datos no serán cedidos salvo obligación legal.

El titular de los datos podrá ejercitar gratuitamente los derechos contemplados por la legislación vigente, dirigiéndose al Servicio Secretaría General del Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga, en Herriko Enparantza, 1 de Gautegiz Arteaga, C.P. 48314-Bizkaia.

En caso de que acepte el tratamiento de sus datos en los términos previstos anteriormente marque esta casilla:

**AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:**

- Eranskin I beteta eta sinatuta.
- a) Pertsona fisikoa bada, NANA bi aldeetatik edo AIZa pasaportearekin batera, hala adierazten badu.
Pertsona juridikoa bada, pertsona juridikoaren, sozietate zibilaren, ondasun-erki-degoaren edo nortasun juridikorik gabeko beste erakunde ekonomiko batzuen IFZ. Halaber, administratzailearen ahalordeen egiaztapena eta, pertsona bera ez bada, eskabidea aurkeztu duenaren egiaztapena. Pertsona bera ez bada, administratzailearen eta eskabidea aurkeztu duenaren ahalordeak egiaztatzea. Bi aldeetako NANA edo AIZa, pasaportearekin batera, administratzailearen eta, bera ez bada, eskaera aurkezten duen pertsonaren berri ematen badu.*
- b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta historikoa, egoitza fiskala Gaute-giz Arteagan duela egiaztatzen duena.*
- c) Langile Autonomoen Araubide Berezian edo dagokion mutualitate profesionalean alta eman izanaren ziurtagiria edo eskaera egin eta azken hilabeteen autonomoei ordaindu izanaren egiaztagiria. Pertsona juridikoaren, sozietate zibilaren edo ondasun-erki-degoaren errolda-egoeraren ziurtagiri eguneratua, jarduera ekonomikoa adierazten duena, alta-datarekin, helbide fiskalarekin eta, hala badagokio, jarduera garatzeko lokalarekin.*
- d) Zinpeko aitorten normalizatua, II. eranskineko ereduaren arabera.

* Ez da behartuta egongo aurreko a), b) eta c) le-tretan zerrendatutako dokumentuak aurkeztera:

- a), b) eta c) agiriak Gaute-giz Arteagako uda-letxean daude.
- Udal-administrazioari baimena ematen zaio beste administrazio batzuetatik eskuratzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Organo kudeatzaileak betekizun horiek egiaztatzeko baimenik ematen ez badu edo horren aurka egiten ez badu, nahitaez aurkeztu beharko dira egiaztagiria.

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR:

- Anexo I cumplimentado y firmado.
- a) En caso de que sea persona física, DNI por las dos caras o NIE acompañado del pasaporte, si lo indica.
En caso de que sea persona jurídica, NIF de la persona jurídica, sociedad civil, comunidad de bienes u otras entidades económicas sin personalidad jurídica. Así como, acreditación de los poderes de la persona administradora y de la que presenta la solicitud en caso de no ser la misma persona. Acreditación de los poderes de la persona administradora y de la que presenta la solicitud en caso de no ser la misma persona. DNI por las dos caras o NIE acompañado por el pasaporte, si lo indica de la persona administradora y de la persona que presenta la solicitud en caso de no ser la misma.*
- b) Alta histórica en el Impuesto de Actividades Económicas que acredite el domicilio fiscal en Gaute-giz Arteaga.*
- c) Certificación del alta en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos o la Mutua profesional correspondiente o recibo justificativo de haber procedido al pago de autónomos en el último mes al de la solicitud. Certificado actualizado de Situación Censal de la persona jurídica, sociedad civil o comunidad de bienes que indique la actividad económica con su fecha de alta, el domicilio fiscal y en su caso el local de desarrollo de la actividad.*
- d) Declaración jurada normalizada de acuerdo con el modelo anexo II.

* No se estará obligado a aportar los documentos relacionados en las letras a), b) y c) anteriores:

- Los documentos a), b) y c) ya obran en el Ayuntamiento de Gaute-giz Arteaga.
- Se autoriza a la administración municipal a obtenerlos de otras administraciones, de acuerdo con lo previsto en el artículo 53.1.d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas —LPACAP—.

En caso de no autorizar u oponerse a la comprobación por el órgano gestor de estos requisitos, deberá aportarse de manera obligatoria la documentación acreditativa.



II. ERASKINA / ANEXO II

ESKAERA EREDUA / MODELO DECLARACIÓN JURADA

Jaun/Andrea NAN:
helbidea: bere
izenean eta establezimenduaren ordezkari gisa
..... IFK: eta sozietatearen
helbidea:

Don/Doña con DNI
y domicilio en en nom-
bre propio y en representación del establecimien-
to con CIF
y domicilio social en

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU
BERE ERANTZUNKIZUNPEAN:

DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:

1. Jarduerari dagokion establezimenduaren titu-
larra dela:

1. Que es titular del establecimiento que perte-
nece a la actividad:

2. Alarma-egoeran, jarduerak eragina izan duela:

2. Que la actividad que desarrolla se ha visto
afectada en el periodo del estado de alarma:

- Establezimendua ixteagatik.
 Alarma egoera deklaratu aurreko seihileko na-
turean egindako batez bestekoaren aldean
fakturazioa gutxienez 50 murriztu izanagatik.

- Por el cierre del establecimiento.
 Por la reducción de su facturación de al-
menos 50 en relación con la media efectuada
en el semestre natural anterior a la declara-
ción del estado de alarma.

3. Baimena ematea prozedura honetatik erato-
rritako jakinarazpen guztiak helbide elektronikoko
honen bidez egiteko:

3. Que consiente que todas las notificaciones
derivadas del presente procedimiento sean rea-
lizadas a través de la siguiente dirección de co-
rreo electrónico

4. Gautegiz-Arteagako Udalarai baimena ematen
diola administrazio publikoetan beharrezkoak di-
ren dokumentuak telematikoki lortzeko.

4. Que autoriza al Ayuntamiento de Gautegiz-
Arteaga a conseguir telemáticamente los docu-
mentos que sean pertinentes en las Administra-
ciones Públicas necesarias.

BAI EZ

SI NO

5. Enpresei eta autonomoei zuzeneko diru-laguntzak emateko programaren deialdian ezarritako baldintza guztiak onartzen eta betetzen dituela, Gautegiz-Arteagako udalerrian establezimenduak mantentzea bultzatzeko, 19. COVIDak eragindako osasun-krisiaren ondorioz.

5. Que acepta y reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria del programa de subvenciones directas a empresas y autónomos para impulsar el mantenimiento de los establecimientos en el municipio de Gautegiz-Arteaga tras la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19.

6. Egunean dituela Foru Ogasunarekiko, Gautegiz-Arteagako Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak.

6. Que está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral, el Ayuntamiento de Gautegiz-Arteaga y la Seguridad Social.

7. Betetzen dituela Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan onuradun izateko ezarritako baldintzak, eta konpromisoa hartzen duela lege horren 14. artikulua araberako baldintzak betetzeko.

7. Que cumple los requisitos señalados en el artículo 13.2 y 13.3 de la Ley General de Subvenciones para obtener la condición de beneficiario y que se compromete a cumplir las condiciones con arreglo al artículo 14 de dicha ley.



8. Alarma-egoera dela-eta, eta diru-laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko:

- Gauegiz-Arteagako Udalari eskatutakoaz gain bestelako laguntzarik EZ dela eskatu, ezta lortu ere.
- Beste laguntza batzuk BAI eskatu eta/edo eskuratu direla. (kopia eranstean da).

Eta, horrela jasota gera dadin eta bidezkoak diren ondorioak sor ditzan, aitorten hau izenpetzen du.

8. Que por motivo del estado de alarma y para ejecutar la actividad objeto de la subvención:

- NO se han solicitado ni obtenido otras ayudas que la correspondiente a la solicitada al Ayuntamiento de Gauegiz-Arteaga.
- SI se han solicitado y/o obtenido otras ayudas. (Se adjunta copia).

Y, para que conste y surta los efectos oportunos, firma la presente declaración responsable.

Ordezkariaren sinadura, dagokionean elkartearen zigilua, lekua eta data
Firma representante, en su caso, sello de la asociación, lugar y fecha

Eskabide honetan jasotako datuak Gauegiz-Arteagako Udalaren titulartasuneko fitxategi batean sartuko dira, DBEOren 7. artikulua araberak. Tratamendu honen helburua da zure datu pertsonalak kudeatzea, eskabide honetan aipatzen den zerbitzua emateko. Datuak ez dira lagako, legeak hala agintzen ez badu.

Datuen titularrak doan baliatu ahal izango ditu indarrean dagoen legeriak aurreikusitako eskubideak. Horretarako, Gauegiz Arteagako Udaleko Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzura jo beharko du (Herriko Enparantza, 1, Gauegiz-Arteaga, PK 48314-Bizkaia).

Zure datuak aurrez aurreikusitako moduan tratatzea onartzen baduzu, markatu lauki hau:

Los datos recabados en esta solicitud, serán incluidos en un fichero cuya titularidad pertenece a Ayuntamiento de Gauegiz-Arteaga conforme al artículo 7 del RGPD. La finalidad de este tratamiento es la gestión de sus datos personales para prestarle el servicio al que se hace mención en esta solicitud. Los datos no serán cedidos salvo obligación legal.

El titular de los datos podrá ejercitar gratuitamente los derechos contemplados por la legislación vigente, dirigiéndose al Servicio Secretaría General del Ayuntamiento de Gauegiz Arteaga, en Herriko Enparantza, 1 de Gauegiz Arteaga, C.P. 48314-Bizkaia.

En caso de que acepte el tratamiento de sus datos en los términos previstos anteriormente marque esta casilla:



III. ERANSKINA / ANEXO III

DIRU-LAGUNTZAREN ZURITZEA / JUSTIFICACIÓN SUBVENCIÓN

Jaun/Andrea NAN:
helbidea: bere
izenean eta establezimenduaren ordezkari gisa
..... IFK: eta sozietatearen
helbidea:

Don/Doña con DNI
y domicilio en en nom-
bre propio y en representación del establecimien-
to con CIF
y domicilio social en

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU
BERE ERANTZUNKIZUNPEAN:

DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD:

1. Jarduerari dagokion establezimenduaren ti-
tularra dela:

1. Que es titular del establecimiento que perte-
nece a la actividad:

2. Alarma-egoeran, jarduerak eragina izan duela:

2. Que la actividad que desarrolla se ha visto
afectada en el periodo del estado de alarma:

- Establezimendua ixteagatik.
 Alarma egoera deklaratu aurreko seihileko na-
turean egindako batez bestekoaren aldean
fakturazioa gutxienez 50 murriztu izanagatik.

- Por el cierre del establecimiento.
 Por la reducción de su facturación de al me-
nos 50 en relación con la media efectuada
en el semestre natural anterior a la declara-
ción del estado de alarma.

3. Alarma-egoera deklaratu aurreko seihile-
koan, hileko batez besteko fakturazioa (zergak
alde batera utzita) honako hau da: euro
20... kok ...(e)tik 20...kok ...(e)ra.

3. Que la facturación media mensual (impues-
tos excluidos) en el semestre anterior a la de-
claración del estado de alarma es el siguiente
..... euros correspondiente al periodo de ...
de de 20... al ... de de 20...

4. Hileko batez besteko fakturazioa (zergak
alde batera utzita) honako hau izan zen, alar-
ma-aldian: euro 2020kok ...(e)tik
2020kok ...(e)ra.

4. Que la facturación media mensual (impues-
tos excluidos) fue de euros durante el pe-
riodo de alarma del ... de de 2020 al ...
de de 2020.

5. Alarma-egoera dela-eta, eta diru-laguntza-
ren xede den jarduera gauzatzeko:

5. Que por motivo del estado de alarma y para
ejecutar la actividad objeto de la subvención:

- Gautegiz Arteagako Udalari eskatutakoaz
gain bestelako laguntzarik EZ dela eskatu,
ezta lortu ere.
 Beste laguntza batzuk BAI eskatu eta/edo
eskuratu direla. (kopia eranstu da)
a) Diru-laguntza eman duen entitatea
Zenbatekoa: euro.
b) Diru-laguntza eman duen entitatea
Zenbatekoa: euro.

- NO se han solicitado ni obtenido otras ayu-
das que la correspondiente a la solicitada al
Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga.
 SI se han solicitado y/o obtenido otras ayu-
das. (Se adjunta copia).
a) Entidad que ha otorgado subvención:
Importe: euros.
b) Entidad que ha otorgado subvención:
Importe: euros.



(...)

Eta, horrela jasota gera dadin eta bidezkoak diren ondorioak sor ditzan, aitorten hau izenpetzen du.

(...)

Y, para que conste y surta los efectos oportunos, firma la presente declaración responsable.

Ordezkariaren sinadura, dagokionean elkartearen zigilua, lekua eta data
Firma representante, en su caso, sello de la asociación, lugar y fecha

Eskabide honetan jasotako datuak Gautegiz-Arteagako Udalaren titulartasuneko fitxategi batean sartuko dira, DBEOren 7. artikularen arabera. Tratamendu honen helburua da zure datu pertsonalak kudeatzea, eskabide honetan aipatzen den zerbitzua emateko. Datuak ez dira lagako, legeak hala agintzen ez badu.

Datuen titularrak doan baliatu ahal izango ditu indarrean dagoen legeriak aurreikusitako eskubideak. Horretarako, Gautegiz Arteagako Udaleko Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzura jo beharko du (Herriko Enparantza, 1, Gautegiz-Arteaga, PK 48314-Bizkaia).

Zure datuak aurrez aurreikusitako moduan tratatzea onartzen baduzu, markatu lauki hau:

Los datos recabados en esta solicitud, serán incluidos en un fichero cuya titularidad pertenece a Ayuntamiento de Gautegiz-Arteaga conforme al artículo 7 del RGPD. La finalidad de este tratamiento es la gestión de sus datos personales para prestarle el servicio al que se hace mención en esta solicitud. Los datos no serán cedidos salvo obligación legal.

El titular de los datos podrá ejercitar gratuitamente los derechos contemplados por la legislación vigente, dirigiéndose al Servicio Secretaría General del Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga, en Herriko Enparantza, 1 de Gautegiz Arteaga, C.P. 48314-Bizkaia.

En caso de que acepte el tratamiento de sus datos en los términos previstos anteriormente marque esta casilla: